

HEGOALDEKO EMAKUMEEI LAGUNTZEKO LANKIDETZA POLITIKEN ESTRATEGIAK ETA IKUSPUNTUAK

(Denbora: 90 minutu)

Ongizatearen ikuspuntua

- 50-60ko hamarraldietan ezarri zuten.
- Emakumeak Garapenean korrontearen aurrekaritzat jo daiteke.
- Ikuspuntu horren jatorriak lotura dauka Hirugarren munduko agintari kolonialek ezarri zuten gizarte ongizate eredutik geratzen zenarekin.
- Ikuspuntu horrek amen aldeko gizarte politika egiten zuen. Emakumeek ugalketan duten rola aitortzen zuen eta garapenaren hartzailerik pasibotzat zautzan.
- Caroline Moser-en arabera, ikuspuntu hori hiru hipotesitan oinarritzen da:
 - o Emakumeak gizarte laguntza jasotzeko gai dira, baina ez dira gai zein gizarte onura jasoko duten erabakitzeko.
 - o Ama izatea da emakumeek gizartean duten rol nagusia.
 - o Seme-alabak haztea da rolik eraginkorra emakumeentzat garapen ekonomikoaren alde guztietan.
- Ikuspuntu hori "demografia arazoari" erantzuten saiatu zen, biztanleria kontrolatzeko programen bitartez. Hala ere, egitasmo horiek beti egiten zuten porrot, gizonen erantzukizuna albo batera uzten zutelako.
- Ikuspuntu horren arabera eginiko proiektuek harrera ona izan zuten, gizarte eta politika mailan ez zutelako nahasmendu handirik sortzen: hau da, ez zuten emakumeengan benetako aldaketarik eragiten.

EG Emakumeak Garapenean izeneko korrontea

EG korrontek emakumeek garapenaren ekoizpenean duten ahalmena aitortu zuen, eta 70eko hamarralditik aurrera kritika egiten hasi zitzaion ongizatearen ikuspuntuari:

- Emakumeak gizarte laguntza jasotzeko gai den taldetzat jotzeak ondorio gisa dakar emakumeak hartzailerik pasibotzat jotzea eta, beraz, horien rol ekonomikoa aintzat ez hartzea.
- Ikuspuntu horrek anbiguitasun argi bat dauka garapenaren aldeko egitasmoen laguntza jasotzen dutenei dagokionez: onuradunak nor dira? emakumeak ala umeak, familia eta komunitatea?

Aukera berdintasunaren aldeko ikuspuntua

- Aukera berdintasuna EG korrontearen jatorrizko ikuspuntua da.
- Nazio Batuek izendatutako Emakumeen hamarraldian, 1976-85ean, ezarri zuten, eta proposamen berria eta feminista izan zen.
- Haren proposamenek honako honetan jartzen zuten arreta: etxeko esparruan eta merkatuan existitzen ziren emakumezkoen jardueren produktibitatea hobetzean.
- Ikuspuntu horrek emakumeen independentzia ekonomikoaren garrantzia azpimarratzen zuen, hori berdintasunaren sinonimotzat jotzen baitzuen.
- Ikuspuntu horrek onartu zuen garapen ekonomikoak eragin negatiboa izan zuela emakumeengan, eta horren arabera emakumeak garapenean sartu behar dira, emakumeen aldeko neurriak ezarri.
- Hala ere, egitasmo horiek oztopoak topatu zituzten eta zenbait kritika jaso zuten:
 - o Gehiegi fidatzen ziren merkatuaz.

- Ez zituzten gogo onez onartzen zenbait eremutan gizonak ezartzen zuten bereizkeria eta boterea kritikatzeko zuten politikak.
- Garapenak sexuen berdintasunean zuten eragin negatiboa ebaluatzea zaila zen, eta horrek gaitzago egiten zuten politika horiek onartuak izatea.

Txirotasunaren aurkako ikuspuntua

- EG korrontearen bigarren ikuspuntua da, 70eko hamarraldian agertu zena.
- Garrantzia eman zioten emakume txiroen diru-sarrerak handitu beharri, eta horrela emakumeen ekoizpen rola aitortu zuten.
- Txirotasunaren aurkako politiken asmoa zen emakume txiroak mobilizatzea, emakumeek kooperatiba elkarteak sor zituzten, diru sarrerak sortzeko.
- Emakumeak emakumezkoen eremuetan bildu ohi dira, beraz horrek ez zuten generoaren premia estrategikoki asetzen.
- Ikuspuntu horrek kritikak jaso zituen:
 - Horiek ere gehiegi fidatzen ziren merkatuaz arazoak konpontzeko.
 - Esku-hartzeak ez zuten aintzat hartzen emakumeen ugaltze rola, eta horren ondorioz, emakumeen lanaldiak zama gehiegi jasotzen zuten, uste zutelako emakumeek asti libre asko zeukatela.
 - Maila txikiko proiektuak eratzen zituen emakumeentzat. Horrek balio gutxiago ematen zion horien lanari eta emakumeen lanbidea familiako gizonak ekarritako diruaren osagarritzat jotzen zuten.

Eraginkortasunaren ikuspuntua

- EG korrontearen hirugarren ikuspuntua, 80ko hamarraldiko zorraren krisialdiari dagokiona.
- Arreta gehiago jarri zuten garapen prozesuan emakumeengan baino. Uste zuten emakumeek garapenean gehiago parte hartzen bazuten, garapena lortzeko laguntza emango zutela.
- Emakumeek egiturazko egokitzapen neurrien gabeziak leuntzen zituzten. Emakumeen hazkuntza eta beregaintasun aukerak asko gutxitu ziren.
- Ez zuten genero estrategiarik bat ere asetzen.

GG Generoa Garapenean izeneko korrontea

- Eztabaidaren gai nagusia botere eta genero harremanak izan ziren, horiek emakumeen mendekotasuna ulertzeko arrazoi gisa aurkeztuz.
- Zalantza jarri zituen etekinak baldintza ekonomikoak arabera soilik neurtzen zituzten ereduak.
- Garapen paradigma berri bat eraikitzen saiatu zen, helburutzat gizarte demokratikoa zeukana, esku-hartzea ahalbidetzen zuena eta aukera berdinean ematen zituena.
- Ikuspuntu horrek generoa gizarte eraketa gisa ikusten zuten, eta ez zituen horregatik beste era bateko gizarte eragileak ahazten: ekonomikoak, politikoak, etnikoak, kulturari dagozkionak eta abar.

Jabekuntzaren estrategia

- 80ko hamarraldian garatu zen estrategia hori, eta haren helburua zen emakumeei botere gehiago ematea.
- Ikuspuntua baino gehiago xede bat zen, eta horretara heltzeko emakumeen ahalmenak sendotu behar ziren eta protagonismoa eman behar zitzaizkien.

- “Empowerment” terminoa aktibismo feministaren esparruan eta Hirugarren munduko emakumeen herri erakundeetan sortu zen.
- Aukera berdintasunaren hipotesietako bi zalantzan jarri zituen:
 - o Garapenak mundu guztiari egiten dio on berez.
 - o Emakumeek bat egin nahi dute mendebaldeko garapen ereduaren korrante nagusiarekin.
- Estrategia horren nondik norakoak hoberen adierazten dituen joeretako bat DAWN-MUDAR sarea da.
- Estrategia horretan botere kontzeptuak eta giza ahalmenaren ideiak bat egiten zuten.
- Generoaren premia estrategikoak asetzea zen haren helburua, eta hori goitik behera egin nahi zuen, generoaren premia praktikoen arabera.
- Generoaren araberrako kontsulta eta esku-hartzea bultzatzen duten plangintzako prozedurak sortu nahi zituen, eta horretarako mobilizazio politikoaz eta antolatuta dauden emakumeen presioaz baliatu nahi zuen.
- Emakumeei beren egoeren kontrola emateko prozesua gizonen ere badagokie.
- Zailtasun asko agertu zen ikuspuntu hori onartzeko.

Jatorria:

- Hernández, I. (1999): “Desigualdad de Género en el Desarrollo”. in *Globalización y Género*. Madril: Síntesis.
- Murguialday, C. et al. (2000): *Perspectiva de género en las ONGD vascas*. Bilbo: Emakumea eta Garapena Mintegia eta Mugarik Gabe.